

Aurkezpena

Euskal historia eta geografian adituak eta zale direnak zoriondu beharrean gaude, dagoeneko *Vasconia* aldizkariaren beste ale bat dasta baitezakete, eta honekin 32 dira 1983 urtean sortu zenetik. Ale honek berritasun bat eskaintzen du edukien aldetik, aldizkaria jendea biltzeko ahalmen handiagoz horni dadin eta adituen artean oihartzun handiagoa izan dezan. Ahalegin horretan tematurik gaude duela zenbait urtetatik hona eta, ildo horretatik, hasieran Eusko Ikaskuntzako Historia-Geografia Saileko kideen ikerlanak zabaltzeko organoa zen aldizkari hura modernizatzeko behar ziren urratsak egin dira, aldizkako zientzia agerkari batek bete beharreko eskakizunen arabera. Erabaki esanguratsuenen artekoak dira: erredakzio kontseilua bat eratztea, argitaratzeko arauak finkatzea, txosten normalizatuak ezartzea aldizkariari eskaini lanak ebaluatzearen, kanpoko informatzaileengana jotzea, artikulua kronologiaren arabera biltzea... Hala berean, aldizkariaren izenburua bakartu nahi izan dugu, *Cuadernos de Sección* (Saileko Koadernoak) izen orokorra, Eusko Ikaskuntzako zientzia sail guztien aldizkarietan komuna dena, alde batera utziz. 1983tik 1995era *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* goi-burua mantendu zen, eta 1996tik aurrera, 24. aleaz batera, *Vasconia* izena hartu zuen. Aldizkariaren izenburu osoa, Eusko Ikaskuntzak berak proposatu fitxa bibliografikoaren arabera, honako hau da: *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*.

Eta hala, goian genionez, beste berritasun bat sartzeko ordua iritsi da, zientzia komunitatearentzat baliabide erabilgarria eta zorrotza sortzeko bide neketu horretan. Oraingoan, edukien atalaren txanda dugu; hori dela eta, bi ataletan banatu dugu aldizkaria: monografikoa lehena, interes historiografikoa duen gai bati eskainia, eta orotariko izaera duena bigarrena, Historia-Geografia Saileko bazkideen ikerlanak kronologiaren arabera jasotzen dituen.

Aldizkariaren bigarren atal honetatik abiatuz, Eusko Ikaskuntza zientzia elkarte delako gogoratu beharra dago, bai eta ikerketa delako haren izateko azken arrazoia, 1918an Oñatiko Unibertsitate errenazentistaren ingurune paregabe finkaturiko sorrerako estatutuek adierazten dutenez. Eusko Ikaskuntzak garatzen dituen ikerketa proiektu orokorrak, sailek edo erakundeak berak –interes berezikotzat joriko kasuetan– proposatuetarikoak dira. Gainera, bazkideek ikerketarako laguntzak lor ditzakete beren proiektu berezietarako. Helburu horretan, Eusko Ikaskuntzak proiektuak aurkezteko aldia zabaldu ohi du urtero, eta hartarako eraturiko batzorde batek –zientzia sailetako lehendakariak osaturikoak–

balioesten ditu proiektu horiek, onartu eta diru laguntza eman aurretik. Gerora, gaian aditu direnek epaitzen dituzte ikerketa horien emaitzak eta, hala badagokio, *Vasconia* aldizkarian, laburpen eran argitaratzeko onespena emango dute. Aldizkariaren 32. ale honen bigarren zatian aurkituko ditu irakurleak, laguntza batez horniturik eta beraien balorazioa egin ondoren, argitaratzeko proposatu diren lanak: A. Angulo, C.M. Fernández, C. Rilova, J. Lange eta M. Zabalarenak Erdi Aroa eta Aro Modernoa atalean, eta E.J. Alonso, Ó. Álvarez, P. Erdozain, F. Mikelarena, F.M. Vargasen lanak Aro Garaikidearen atalean. J.C. Alberdi, berriz, geografian.

Atal monografikoari dagokionez, ekimen honek urruneko aurrekari bi dituela esan beharra dago, zoritxarrez segidarik izan ez zutenak: 2. alekoak (1984) hainbat lan bildu zuen Historia Garaikideko Dokumentazio Zentruari buruz eta 10. aleak (1988) Bilboko Setioaren 150. urtemurgari eskainitako beste batzuk hartu zituen bere baitan. Oraingoan, ideia hori plazaratzen dugu berriro, gai bat sakonki aztertzeko asmoz eta aitorturiko adituen eskuz. Hala, gure ustetan, aldizkaria aberastu egiten da, edukietan irabazten du, eta ikastunei produktu osoagoa eskaintzen zaie.

Vasconia aldizkariaren edukien banaketa berri honekin batera, aldizkariaren ale osoa *Tokiko Historiari buruzko Jardunaldiak* ekitaldien aktak argitaratzeko ohitura mantenduko da, jardunaldi horiek Historia-Geografia Sailak bi urtez behin antolatzen dituelarik. Gaur arte egindako sei jardunaldiak argitaratu dira, bai eta aurre-jardunaldi batzuk ere.

Lehen atal monografikorako Manuel Irujo Olo ospetsua aukeratu dugu, oinarriko arrazoi birengatik. Lehen buruan, haren nortasunean hain interesgarri eta erakargarria den alderdi politikoarengatik. EAJko buruzagia; Espainiako Errepublikako Gorteetan diputatua; karterarik gabeko ministroa, Justizia eta Industria ministroa II. Errepublikako gobernuetan eta erbestean; Euskal Kontseilu Nazionalaren sortzailea Londresen; Nafarroako senataria eta Nafarroako foru parlamentaria Trantsizioan. Eta bigarrenik, Eusko Ikaskuntzarekiko izan zuen lotura estuagatik, ondoko adibide sorta honetan ikus daitekeenez: Nafarroako Aurrezki Kutxa sortu zen 1921ean, haren eta Eusko Ikaskuntzaren ekimenari esker; 1932an Eusko Ikaskuntzako Administrazio Orokorreko Saileko batzordekide eta Batzorde Iraunkorreko kide izendatu zuten; halaber, Euskal Unibertsitatea sortzea helburu zuen Eusko Ikaskuntzaren batzordean esku hartu zuen, Angel de Apraiz bezalako beste zenbait intelektual gailenekin batera; irailan Lizarran egin behar eta berak Eusko Ikaskuntzaren barnetik bultzatu izan zuen Historia Kongresua zapuztu zuen 36ko Errepublikaren aurkako altxamenduak; 1936ko Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrekoak izan eta bizirik zirauten sei kideen taldean zegoen, eta horiek, 1978an, Eusko Ikaskuntza berpiztu zuten Diktadura amaitu ondoren. Hona beste bostak: Jose Migel Barandiaran, Justo Garate, Manuel Lekuona, Aingeru Irigaray eta Joaquín Irizar. 1981eko martxoaren 29an, Irujo hil eta hiru hilabete-ra, Eusko Ikaskuntzak omenaldi bat egin zion Iruñean, *Manuel de Irujo-ri omenaldia: Iruñea 29.3.1981* eta RIEVen bildu zirenak. Irujoren familiak Eusko

Ikaskuntzan utzi zuen haren artxiboa pertsonala, *Irujo Fondoa* moldatuz, zeina katalogaturik eta ikertzaileen esku dagoen.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, ohore handiz buru naizen Historia-Geografia Sail honek, 2000ko maiatzaren 13an Bermeoko Ertzilla Dorrean, egungo Arrantzalearen museoaren egoitzan, egindako ohiko bileran, Irujoren inguruko jardunaldi batzuk eta erakusketa egitea erabaki zuen Irujo hil ondoko hogeigarren urtemuga ospatzearren. Ekitaldi horien bidez, Eusko Ikaskuntzak bere jarraibide garrantzitsuenetariko bat betetzen du: dibulgazioa. Eusko Ikaskuntzan garatzen den ikerketak, eta azken garaiotan Irujo eta haren testuinguruari buruz kualitatezko urrats garrantzitsuak eman dira, ez luke zentzu handirik izango, horren emaitzak, oro har, herritarrei jakinarazi ez izatera. Hala bada, erakusketa eta jardunaldiak zientzia komunitatearen eta, oro har, gizartearen artean komunikazio erraza jartzeko bidea izan ziren, baina baita ikerlarien arteko emaitzak trukatzeko baliabidea ere. Hori guztia islaturik geratu da *Vasconia* aldizkariaren lehen atal monografiko honetan.

Iñaki Bazán
Historia-Geografia Saileko Lehendakaria

Presentación

Los estudiosos y aficionados a la historia y geografía vasca están de enhorabuena, pues ya pueden disfrutar de una nueva entrega de la revista *Vasconia*, y van 32 desde que se fundara allá por el año 1983. Este número ofrece una novedad en sus contenidos, con objeto de dotar a la revista de mayor poder de convocatoria y eco entre el público especialista. En este empeño estamos inmersos desde hace unos cuantos años y es por lo que se han dado los pasos necesarios para modernizar la inicial revista, órgano de difusión de los trabajos de investigación de los miembros de la Sección de Historia-Geografía de Eusko Ikaskuntza, de acuerdo con las exigencias que cualquier publicación científica de carácter seriado debe cumplir. Entre las decisiones más significativas se encuentran la constitución de un consejo de redacción, el establecimiento de las normas de publicación, la introducción de informes normalizados para evaluar los trabajos ofrecidos a la revista, el recurso a informantes externos, la agrupación de los artículos cronológicamente,... Igualmente se ha pretendido individualizar el nombre de la revista, abandonando el genérico de *Cuadernos de Sección*, común a todas las revistas de las diferentes secciones científicas de Eusko Ikaskuntza. Desde 1983 hasta 1995 se mantuvo la cabecera de *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía*, y a partir de 1996, coincidiendo con el número 24, pasó a denominarse *Vasconia*. Cuyo título completo es, según la ficha bibliográfica propuesta por la propia Eusko Ikaskuntza, *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*.

Ha llegado el momento de introducir, según decíamos, una novedad más en ese difícil camino de crear una herramienta útil y rigurosa para la comunidad científica. Ahora le toca el turno al apartado de los contenidos, por ello se ha dividido la revista en dos secciones: una primera monográfica, con estudios referidos a una cuestión de interés historiográfico, y una segunda de carácter misceláneo, que recoja los resultados de las investigaciones de los socios de la Sección de Historia-Geografía agrupados cronológicamente.

Comenzando por esta segunda sección de la revista, hay que recordar que Eusko Ikaskuntza es una sociedad científica, en la que la investigación es la razón última de su existencia como reflejan sus estatutos fundacionales establecidos en 1918 en el marco incomparable de la renacentista Universidad de Oñati. Los proyectos de investigación generales que desarrolla Eusko Ikaskuntza son propuestos por sus diferentes secciones o por la

propia entidad en aquellos casos considerados de especial interés. Pero además, los socios pueden acceder a disfrutar de ayudas a la investigación para sus proyectos particulares. Con tal objeto, Eusko Ikaskuntza abre anualmente un período de presentación de proyectos, los cuales son valorados por una comisión *ad hoc*, compuesta por los presidentes de las secciones científicas, antes de su aceptación y concesión de una ayuda económica. El resultado de estas investigaciones es juzgado posteriormente por expertos en la materia, quienes otorgarán, en su caso, el preceptivo plázet para su publicación, a modo de resumen, en *Vasconia*. El lector puede encontrar en la segunda parte de este número 32 de la revista los trabajos que se beneficiaron de una ayuda y que tras su valoración han sido propuestos para su publicación: en el apartado de Edad Media y Moderna se encuentran los de A. Angulo, C.M. Fernández, C. Rilova, J. Lange, M. Zabala y en el de Contemporánea los de E.J. Alonso, Ó. Alvarez, P. Erdozáin, F. Mikelarena, F. M. Vargas. J.C. Alberdi por contra, en el de Geografía.

Por lo que respecta a la sección monográfica hay que advertir que es una iniciativa que cuenta con un par de lejanos precedentes, pero que desgraciadamente carecieron de continuidad: el nº 2 (1984) incluyó una serie de trabajos sobre el Centro de Documentación de Historia Contemporánea y el nº 10 (1988) otros referidos al 150 aniversario del Sitio de Bilbao. Ahora relanzamos la idea, con la intención de analizar una tema en profundidad y a cargo de reconocidos especialistas. De este modo consideramos que la revista se enriquece y gana en contenidos, ofreciendo a los estudiosos un producto más completo.

Junto a esta nueva distribución de los contenidos de *Vasconia* también se mantendrá la costumbre de dedicar de forma íntegra el volumen de la revista a la publicación de las actas de las *Jornadas de Historia Local* que con periodicidad bianual organiza la Sección de Historia-Geografía. Hasta la fecha han aparecido las seis ediciones celebradas, además de una “precuela” o pre-jornadas.

Para la sección monográfica se ha elegido la figura de Manuel Irujo Olo por dos razones fundamentales. En primer lugar, por la vertiente política tan interesante y apasionante de su personalidad. Fue dirigente del PNV; diputado en las Cortes españolas de la República; ministro sin cartera, de Justicia y de Industria de los gobiernos de la II República y del exilio; fundador en Londres del Consejo Nacional Vasco; y en la Transición senador por Navarra y parlamentario foral de Navarra. Y en segundo lugar, por su estrecha vinculación con Eusko Ikaskuntza, como se comprueba a través de este ramillete de ejemplos: en 1921 se creó la Caja de Ahorros de Navarra gracias a su iniciativa y a la de Eusko Ikaskuntza; en 1932 fue nombrado vocal de la Sección de Administración General y miembro de la Junta Permanente de Eusko Ikaskuntza; también participó en la Comisión de Eusko Ikaskuntza para la creación de la Universidad Vasca, junto con destacados intelectuales como Ángel de Apraiz; el alzamiento del 36 contra la República frustró un congreso de Historia que se iba a organizar en Estella en septiembre y que él impulsó desde dentro de Eusko Ikaskuntza; formó parte del grupo de seis

supervivientes de la Junta Permanente de la Sociedad de 1936, que en 1978, tras la Dictadura, reactivaron Eusko Ikaskuntza. Las otras cinco personas fueron José Miguel de Barandiarán, Justo Gárate, Manuel Lekuona, Aingeru Irigaray y Joaquín Irizar. El 29 de marzo de 1981, casi tres meses después de su muerte, Eusko Ikaskuntza le tributó un homenaje en Iruña, recogido en *Manuel de Irujo-ri omenaldia: Iruñea 29.3.1981* y en la *RIEV*. Su familia depositó su archivo personal en Eusko Ikaskuntza, formando el *Fondo Irujo*, que está catalogado y es accesible a los investigadores.

Por todas estas razones, la Sección de Historia-Geografía, que tengo el honor de presidir, acordó en Junta ordinaria celebrada el 13 de mayo de 2000 en la Torre Ercilla de Bermeo, actual sede del museo del Pescador, la realización de unas jornadas y exposición sobre Irujo para conmemorar los veinte años de su fallecimiento. Con estos actos Eusko Ikaskuntza cumple con una de sus principales directrices: la divulgación. La investigación que se desarrolla en Eusko Ikaskuntza, y sobre la figura de Irujo y su contexto en los últimos tiempos se han dado importantes pasos cualitativos, no tendría mucho sentido si no fuera acompañada por la comunicación de los resultados a la ciudadanía en general. Así pues, la exposición y las jornadas fueron el medio de establecer una comunicación fluida entre la comunidad científica y la sociedad en general, pero también el medio para el intercambio de resultados entre los investigadores. Todo ello ha quedado reflejado en el contenido de esta primera sección monográfica de *Vasconia*.

Iñaki Bazán
Presidente de la Sección de Historia-Geografía